

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Maria Angeles Aldekogarai Alastra*

*Ea, Bizkaia  
(1951)*

Aurkibidea



## Biografia



Maria Angeles Aldekogarai Natxituako (Ea) Angelutxo auzoan jaio zen 1951an, Atzeko baserrian. Hiru anai-arreba dira eta bera da gazteena. Eskolara Natxituan ibili zen hamabost urtera arte eta ondoren Ean joskintza ikasi bazuen ere, hogei urterekin fabrika batean lanean hasi zen, Ispasterren. Erromeria batean Gizaburuagako nobioa ezagutu eta bertara ezkondu zen, Laxier auzoko *Akuiola* baserrira. 80. hamarkadaren amaieran, baserriko oilotegi zaharra zaharberritu eta Euskal Herriko lehenetariko nekazal-turismoa zabaldu zuten, oraindik ere eta 37 urte eta gero martxan dabilena. Maria Angeles, Gizaburuaga alkatea izan zen hogei urtez, 1991tik 2001. urtera arte eta bere 4 legealdietan, hainbat etxebizitza berri eraiki ziren herrian.

## Zintak

### EAA-030

- **Proiektua:** Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-11-25
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

## Pasarteak

### 1. Jaunartzea egin zuen lutuan zeuden bitartean

- **Erref:** EAA-030/002
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:03:28

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Ea-ko Angelutxu auzoko "Atzeko" izeneko baserrikoa da. Bi anai zahar ditu. Amona beraiekin bizi zen eta jaunartzea egin baino pixka bat lehenago zendun zenez, ospakizuna doluan egin zen.

**2. Amak esnea partitzen zuen**

- **Erref:** EAA-030/003
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:06:14

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

**Laburpena:**

Baserrian behiak, oiloak, astoak... zituzten. Amak esnea Ean saltzen zuen etxez-etxe. Geroago, Ea-ra jaitsi beharrean bidera atera eta bertan saltzen zuen kaikuarekin. Esnedun bakoitzak bere bezeroak zituen.

**3. Baserria bai, baina ekoizpenik ez**

- **Erref:** EAA-030/004
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:07:46

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena:**

Baserritik bizi ziren haur eta gaztetan. Gero hiru anai-arrebek kanpoan lan egin dute, lantegietan. Baserriko ekoizpena nahiko berandu arte mantendu zuten baina orain baserria eta lurrak bakarrik dituzte, aktibitate ekonomikorik gabe.

**4. "Txorizo pamplona" nahiago etxeko txorizoa baino**

- **Erref:** EAA-030/006
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:10:59

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

**Laburpena:**

Gutiziarik ez zuten izaten baserrian baina jateko falta ere ez. Janari bereziak izaten ziren batzuetan: pastelak, errusiar entsalada, bisigua... Txerria zuten, txerriki onak egiten zituzten. Hala ere, haurrek nahiago izaten zuten kanpoko "txorizo pamplona" jan.

**5. Goserik ez dute inoiz pasa**

- **Erref:** EAA-030/008
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:12:07

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

**Laburpena:**

Jatekoaren faltarik ez dute inoiz izan baina gutziaren bat jateko gogo bai. Hurrei gaseosa ematen zieten igandetan.

**6. Patinetik ateratzen zen ura**

- **Erref:** EAA-030/009
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:12:07. **Bukatu:** 00:15:16

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

**Laburpena:**

<p>Baserrian beti ezagutu du argindarra baina ur-korronterik ez. "Patinetik" iturburuko ura ateratzen zuten kozinatzeke, norbera garbitzeko, platerak garbitzeko... Patina baserri batzuen artean partekatzen zen. Edateko ura iturri batetik hartzen zuten eta ganaduak putzutik edaten zuen. Udan, patinetik ura ateratzeko ordu zehatzak zeuden.</p>

**7. Arropa errekan eta eskuzko garbigailuarekin garbitzen**

- **Erref:** EAA-030/010
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:15:16. **Bukatu:** 00:17:00

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

Lehenengo garbigailua eskuzkoa izan zen. Errekan eragin behar ziren arropak. Izarak garbitzea lan handia zen. Zortia ipintzen zuten emakumeek buruan eta haren gainean arropaz betetako saskia.

**8. Aste osorako ogia egiten zuten**

- **Erref:** EAA-030/014
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:20:42

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

**Laburpena:**

<p>Larunbatetan aste osorako ogia egiten zuten baserrian. Ogia nola egiten zen kontatzen du. Hurrek nahiago izaten zuten okindegiko eguneko ogia, etxekoa baino. Garia ereiteari utzi ziotenean lan bat gutxiago izan zuten etxean ere.</p>

**9. Garai bateko janak, gaur egun gutziak**

- **Erref:** EAA-030/015
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:20:42. **Bukatu:** 00:22:30

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

Gaur egun baserriko ogia, taloak... azoketan eta egun berezietan jaten ziren. Garai batean eguneroko janak ziren. Morokila ez zen jaten bere etxean.

**10. Natxituako eskolan haur asko**

- **Erref:** EAA-030/017
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:24:00

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Natxituko eskolan haur asko zeudenez, neskek goizetan izaten zituzten klaseak eta mutilek arratsalde. Gero eskola berriak egin zituzten.

**11. Angelutxu auzokoak beti Natxitura**

- **Erref:** EAA-030/019
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:25:13

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Angelutxu auzokoak Natxituara joaten ziren eskolara eta elizara. Eakoekin harremanik ez zuten.

**12. Eskola frankismo garaian**

- **Erref:** EAA-030/021
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:25:22. **Bukatu:** 00:26:53

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Eskolan gaztelaniaz ikasten zuten baina doktrina euskaraz. "Cara al sol" abesten zuten egunero eta noizbehinka ikuskaritzakoak agertzen ziren eskolan.

**13. Izzarak brodatzen eskolan**

- **Erref:** EAA-030/023
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:28:34

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena:**

Eskolan josten erakusten zieten neskei eta izarak brodatzen zituzten. Entziklopedia bat erabiltzen zuten liburu bezala.

**14. Eskolako irteerak eta txangoak**

- **Erref:** EAA-030/024
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:30:30

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena:**

Ikasturte bukaeran irteera bat egiten zuten, normalean Igeldora. Autobusean joaten ziren. Plentziara, Gornizera, Sondikara... ere joaten ziren. Derioko idiak ikustera joan ziren ere.

**15. Jostuna izateko ofizioa hasi zuen**

- **Erref:** EAA-030/025
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:32:32

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Hamabost urterekin ikasketak bukatu zituen eta josten ikasten hasi zen Ean. Emakume batekin ikasi zuen praktikak josten. Bertan zegoela Ispasterko lantegi batean lan egiteko eskaintza jaso zuen eta bertara joan zen.

**16. Autobusean erromeria guztietara**

- **Erref:** EAA-030/027
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:32:41. **Bukatu:** 00:34:45

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

**Laburpena:**

Erromeria baten ezagutu zuen Gizaburuagako mutil-laguna. Erromeria askotara joaten ziren eta autobusean mugitzen ziren. Lagunen baten kotxean edo taxian bueltatzen ziren etxera

**17. Gernikara dantzara edo zinemara**

- **Erref:** EAA-030/028
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:34:45. **Bukatu:** 00:36:43

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Gernikara joaten ziren ia igandero "sala de fiestas" edo dantzalekura. Hasieran Lekeitioko Jai Club-era joaten ziren baina gero Gernikara autobusean. Gernikan zinera, dantzalekura, kafetegietara... joaten ziren.

**18. Franco hil zen egunean, jai**

- **Erref:** EAA-030/032
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:38:22. **Bukatu:** 00:41:02

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

**Laburpena:**

Gernikan atera zuen gidabaimena. Franco hil zen egunean klase bat hartzera joan zen baina jai eguna zenez, etxera bueltatu zen. Franco hil ostean aldaketak egon ziren baina ez zuten horrenbeste sumatu.

**19. Etxetik kanpo lan egitearen onurak**

- **Erref:** EAA-030/034
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:41:10. **Bukatu:** 00:44:44

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Lea-Artibaiko lantegiak

**Laburpena:**

1979an ezkondu zen Gizaburuagara. Lantegian lan egiteari utzi zion eta gutxira itxi zuten. Lantegian lan egitea oso positiboa izan zen berarentzat, etxetik atera zelako, gidabaimena atera zuelako, dirua irabazi...

**20. Nekazalturismoa zabaldu zuen baserrian**

- **Erref:** EAA-030/036
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:45:08. **Bukatu:** 00:46:08

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Nekazalturismo bat zabaldu zuen baserrian. Hasieran ez zekien zer zen ere ez. Prozesua nolakoa izan zen azaltzen du.</p>

**21. Nekazalturismoan urtero errepikatzen duten bezeroak**

- **Erref:** EAA-030/038
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:50:53. **Bukatu:** 00:55:13

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Zaragozako bikote bat izan zuten nekazalturismoan, zabaldu eta gutxira. Geroztik urtero pasatzen dituzte 15-18 egun Maria Angelesen nekazalturismoan, gaur egun seme-alabekin eta haien bikoteekin. Ia 35 urte dira urtero joaten direla eta familiatzat hartzen dituzte.</p>

**22. Herriko adin nagusiko guztiak dira alkategaiak**

- **Erref:** EAA-030/041
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:56:51. **Bukatu:** 00:59:20

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

**Laburpena:**

<p>1991tik 2001ra izan da Gizaburuagako alkate. Gizaburuagan, 18 urtetik gorako biztanle guztiak dira alkategaiak, eta hauteskundeak baino lehen aurre-bozkaketa bat egiten da. Prozesua nolakoa den eta bera nola atera zen kontatzen du.</p>

**23. Hogei urtez Gizaburuaga alkate**

- **Erref:** EAA-030/042
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:02:16

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

**Laburpena:**

<p>Hogei urtez Gizaburuaga alkate. Hasieran ez zuen nahi, ez zuelako bere burua gai ikusten. Ez dago alderdi politikorik eta 18 urtetik goragoko edozein izan daiteke alkategai. Amoroton ere horrela aukeratzen da alkatea. 2001ean alkatetza utzi nahi zuen eta hauteskunde aurreko bozketan, berari ez bozkatzeko eskatu zuen.</p>

**24. Biztanleria mantentzeko etxebizitzak sortu ziren**

- **Erref:** EAA-030/043
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:02:16. **Bukatu:** 01:04:42

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

**Laburpena:**

<p>Gizaburuagako alkate 20 urtez izan eta gero, herrian aldaketa asko egon ziren. Udaletxe berria egin zen. Gazteak herririk ez joateko etxebizitza berriak eraiki ziren. Abade etxean adinekoentzat eguneko zentroa sortu zuten.</p>

**25. Herrian egindako ekarpenagatik pozik**

- **Erref:** EAA-030/044
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:04:42. **Bukatu:** 01:05:30

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

**Laburpena:**

Alkate izandako garaia buruzko oroitzapen positiboak ditu. Pozik dago herriari egindako ekarpenagatik.

---

**Aldekogarai Alastra, Maria Angeles** | [ahotsak.eus](mailto:ahotsak.eus) Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-01-03*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)